



GORILAS EN LA NIEBLA

Tepuy Roraiman bide berri bat

96.eko udaberriko edozein egunetan

-Riiinnngg, riiinnngg....
-Bai, nor da?
-Kaixo Potronko, zer moduz?
-Kaixo Txiki, badakik, tirandillo...
-Hi, hor Venezuela aldean ba omen dituk tepuy izeneko mendi batzuk izugarriko hormatzarrekina...

Astebete geroago

-Riiinnngg, riiinnngg...
-Hi, udaran euri asko egiten duela jakin diat, eta hemengo neguan omen duk hango denbaldia ona, posible izango ote zai-guk?
-Beno, uste diat gabonetako oporreie eranskin bat egin eta beste egun libre batzuk hartuz gero....

96.eko abenduan

Paraytepu deituriko herrixka batean gaude, Caracas atzean utzi genuenetik bi egun igaro dira, autobus eta petateei buruzko eztabaida gogorrez jositako egunak, nekagarriak, baina hemen gaude azkenean; gure aurrean, beno, 30 bat kilometrotara, Kukenan eta Roraima tepuy-ak ditugu, harro, beraien hormatzarrak erakutsiz gu erakarri nahian, eta egia esan, behar bada lortu ere lortuko dute.

Kukenan deituriko tepuy-an eskalaztea zen gure asmoa hasera batean, baina bi edo hiru hilabete lehenago norbait galdu zela eta hertsita omen dago, erabaki zentzugabea noski, baina sendoa, eta indioak burugogor jartzen direnean....., baina tira, Roraima ere hor dugu eta egun osoa eztabaidan eman ondoren Pemoi en oneritzia lortu dugu eta bagoaz, bagoaz...

Egun osoko porteoan egiten dugu Roraimaren kanpamenturaino hiru porteadoreez lagundurik, hurrengo

Xabier Izagirre



egunean berriro itzuli eta guk biok bakarrik beste porteo bat egiteko, jasanezina, hankak apurtuta eta bizkarra... beno, eta nori axola zaio gure bizkarra, ezta behartuta etorri bagina ere.

Hurrengo eguna hankaz gora pasatzen dugu, horma ondo begiratu, hobeto begiratu, eta berriro ere begiradaxo bat botatzen. Eguna bukatzerako bidea erabakia dugu, haitz gorria, desplomea, ez bustitze-noski, orain trasteak horma barrenera eraman eta markatutako bidetik gora igotzea bakarrik falta zaigu, txupao!!

Bi egun ematen ditugu material guziaz horma azpira eramaten, ura ere hormatik bost minutura topatu dugu, zati batean bidea matxetez irekitzea ere tokatu zaigu. Behera jeitsi eta azken gaua kanpamentuan, horizontaletik bertikalera pasa aurretik, irrifarre urduriak, bihar hasiko gaituk dantzan.

Bertikalean hamaika egunak

Txikiri tokatu zaio lehenengo tirada, luzea, lehenengo zatia librean, haitz ustela, bloke solte asko baina eguna bukatzerako 50 metro egin ditugu, pozik lotara. Bigarren egunean hormara goaz bizitzera, bigarren tirada delikatu, artifiziala, behatzari kristoren mailukada, hobeto apuntatu behar duk Potronko. Petateak igotzerako gaua da, eta noski, nola ez bada, ez dute igo nahi, zerriak astunak daude oraindik, egun luzea eta neketsua izan da.

Egunak eta tiradak aurrera doaz, poliki poliki, goizeko seiretan jeiki, gosalduta eta bat lanera eta bestea depresiorik beltzenean murgiltzera, elkarguneetako egonaldiak jasanezinak egiten zaizkigu, orduak joan eta orduak etorri leku berean eskegita, hamaka goizean gorde egiten dugu normalean, harri asko erortzen eta ohea izorratzen bazaigu akabo fandangoa. Bost edo seigarren egunean tabakorik gabe geratzen gara eta elkarguneak jasanezi-



nagoak bilakatzen dira. Haitza hobetzen ari da igotzen ari garen heinean, egunean tira da bat egiten dugu, berrogei edo berrogeitahamar metro gutxi gora behera. Elkargune guziak bi spit-ek ekipatzen ditugu, M8-koak noski, M8-ko spita erabili behar ez dela esaten dutenak ekarriko nituzke nik hona M10-ekoa eskuz sartzera, ea zer esaten duten.

Egunak aurrera doaz eta janaria urritzen hasi da, hirugarren egunetik errazionamenduan gaude, goizean gosalduta eta gauean afalduta, beno, afalduta ez genuen egiten baina zertxobait barnertzen genuen bai, gainera zer? ez gaude etxean ezta?

Igotzeko teknika makala da, behetik ikusten ziren fisura eta diedroak hemen daude bai, baina itsuak dira gehienak, progresio tekniko eta delikatuak, koperhead-ak, gantxo asko, hiltze puntak...

Egunero laino artean gaude, goizeko bederatziak aldean sartzen da eta arratsaldeko bostak alderarte ez du aldegiten, euria ere dexente egiten du baina ez gara bustitzen, abantailaren bat izan behar zuen desplomean eskalatzeko ezta?

Gailurretik behera

Tiradak atzean geratuz doaz eta gero eta txikiagoak ikusten ditugu beheko zuhaitzak, urtea bukatzera doa eta urtearekin batera bukatzen dugu gure bidea ere. Abenduaren 31 garren eguna da eta gailurrean gaude, nekatuta baina pozik, urrutira ibiltari talde bat ikusten dugu eta haiengan goaz zuzenean, jendea dagoen tokian janaria ere izaten baita, harrera ona eta ospatzeko txanpaina ere izan genuen, eskerririk asko.

Oraindik jeitsiera geratzen zaigu, oinez eta petate bana bizkarrean dugula, botak? behean geratu ziren eta eskalatzeko oinetakoekin egiten dugu jeitsiera, oinak? beno, ez dut uste ain itxura haundirik zutenik behera iritsi ginenean

Walki bat dugu eta helikopteroen frekuentzia ere bai, tentazio ikaragarria, turistak gailurrera eramaten ari dira eta ederki ikusten dugu helikopteroa gure gainetik pasatzen. Eta dei bat egingo bagenio ea zenbatean ateratzen gaituen hemendik? Bi ordu geroago Santa Elenako errestaurante batetan gaude, jaten, zertan ba bestela.

Atzean geratu dira horman pasatako hamaika egunak, "Gorilas en la niebla" jarri diogu izena gure bideari, zailtasunez VI, 6a+, A4 koa, 500 metro; atzean geratu dira gora behera guziak, orain pasa da eta beste gozotasun batez dastatzen dugu guzia, patxadaz eta lasaiago, merezi zuen ezta? Bai merezi zuen.

Saiatu gara han bitzakokoak hitz eta argazkien bidez azaltzen, baina badira han bitzako zenbait une eta egoera, han egon ginenez bakarrik dasta ditzakegunak, paperean islada ezinak, eta horiek gure barneko zokorik gozotzen gordeko ditugu betirako. □



Fotos de los autores

□ OHAR TEKNIKOAK □

□ NOLA IRITXI

- Caracas- Ciudad Bolibar- autobusez, 10 ordu.
- Ciudad Bolibar- San Francisco de Yuruani- autobusez, Santa Elena de Huayren-era joaten da autobus hau, baina gidariari esan San Francisco de Yuruani-n uzteko, 12 ordu.
- San Francisco de Yuruani- Paraytepu- Jeep-ean, tour agentzia bat dago, oso garestia, partikular batzu badira merkeagoak, han galdetu, 30 minutu.
- Paraytepu-en porteadoreak aloka daitezke, indioak, 18 kilo eramaten dute eta 3000 pza inguru kobratzen dute eguneko, Roraimaren basera bi egun kobratzen dituzte baina egun luze batean egin daitezke.
- Botikina: Sugeen pozoiaeren aurkako antiofidikoak, (Caracas-en erosten dira, Farmaziako Fakultatean.), Adrenalina eta antialerjikoak ere komenigarriak dira.
- Euritako arropa eta forroren bat edo beste ere komenigarriak dira, euri asko egiten du.
- Maxeteta ezinbestekoa da hormara heltzeko.
- Denboraldirik egokiena Abendutik Otsailera da euri gutxiago egiten duelako.

□ MATERIALA

- 15 L.A. - 20 K.B. - 10 V. - 3 U. - 3 teja - 4 Bird Peak. - 3 Bong. - Stopper joku haundi bat. - 2 Camalot joku. - 2 Friend joku. - 2 Alien joku. - Gantxoak. - 15 Coperhead. - M8-ko txapa eta tornilloak. - Hamaka eta bibakeko materiala.
- Komenigarria da hormarako lubrikantea eramatea (3 en 1 edo antzerkoko) materiala lehortu egiten baita hezetasunarekin.

► RESUMEN

GORILAS EN LA NIEBLA

Xabier Izagirre, de Azkoitia, y Raúl Alava, de Gasteiz, abrieron a finales de 1996 una vía en un tepuy, uno de esos monolitos que se elevan como milagros sobre la sabana venezolana. El tepuy es el Roraima (2800 m), una montaña muy visitada por los turistas en cuya cumbre se unen Venezuela, Brasil y Guayana, pero tiene un paredón vertical de 500 metros irguiéndose sobre la selva.

Once días para hacer trece largos de 6 A+y, artificial A4, muchos de ellos extraplomados, lo cual era una ventaja porque así no se mojaban con la lluvia. Once días de escalada en una roca fenomenal, intentando salir de la niebla que les cubría durante todo el día, a todas horas, todo el rato. El 31 de diciembre aparecen en la cumbre, llena de turistas, y la tentación del helicóptero es demasiado fuerte. Dos horas después están cenando en un buen restaurante en Santa Elena. Los gorilas han escapado de la niebla. □

GORILAS EN LA NIEBLA

